



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2013ko otsailaren 5a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK:

Jon Agirresarobe Lopetegi zinegotziak (Bildu) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2012ko abenduaren 26an egindako ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko 8. sektore urbanistikoaren —Munto— Plan Partziala.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udalak onartutako kontratazio publikoko espedienteetan aplikatu beharreko hizkuntz irizpideei.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orria, arautuko duena Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatuaren zerbitzuak emateko kontratazioa, kontzesio administratiboko erregimenean.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio zentroaren aisialdiko zerbitzuaren gestioaren kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa arautuko duten baldintza juridikoak eta ekonomiko-administratiboak.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio zentroaren kirol medikuntza, fisioterapia eta hipoxia zerbitzuaren gestioaren kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa arautuko duten baldintza juridikoak eta ekonomiko-administratiboak.
- 7.- Onartzea, egoki bada, 'Saregile kalea' izena ematea Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko 8. sektorean kokatutako oinezkoen bide bati.
- 8.- Onartzea, egoki bada, EAJ talde politikoak aurkeztu duen protokoloa, etxegabetze kasuetan Udalak nola jokatu behar duen arautzen duena.
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2012KO ABENDUAREN 26AN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa emango duela, iruditzen zaiolako aktaren gai-zerrendako



6. gaiaren eztabaidan (Etxeluze eraikinaren erosketa) ez daudela zehatz jasota 2012ko abenduaren 20ko Obra eta Zerbitzuetako batzordean izandako parte-hartzeak.

Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, Orain plataformaren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak ere abstentzio-botoa emango duela, Jon Redondo zinegotziak azaldutako arrazoi berberetatik.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu) eta Saizar (Bildu), guztira **LAU ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz; abstentzio botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ), Etxeberria (EAJ), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZORTZI ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA udalbatzarrak 2012ko abenduaren 26an egindako ezohiko bilkurako akta.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIKO 8. SEKTORE URBANISTIKOAREN —MUNTO— PLAN PARTZIALA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko 8. sektore urbanistikoaren —Munto— plan partziala INMOBILIARIA ORIO TXOKO TXIKI SL eta DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL SL entitate merkantilek sustatu dute eta Luis Ulazia eta Luciano Pagaegi arkitektoek idatzi dute.

Auzitegi Gorenaren 2012ko urriaren 25eko bi epaiek atzera bota dituzte Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. atalak emandako bi epaien aurka (2010eko otsailaren 17koa, 845/2008 errekurtsuari dagokiona; eta 2010eko azaroaren 10ekoa, 1356/2008 errekurtsuari dagokiona) jarritako 2872/2010 eta 7073/2010 kasazio-errekurtsuak; ondorioz, bi epai horien arabera, Auzitegi Gorenak deklaratu du Orioko Udalak 2008ko martxoaren 4an hartutako erabakia, 8. sektoreari —Munto— dagokion plan partziala behin betikoz onartzen duena, ez datorrela bat zuzenbidearekin, *disponiendo la retroacción del procedimiento al momento de exposición pública del documento inicialmente aprobado y del estudio hidrológico exigidos por las Normas Subsidiarias.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, 2012ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, behin betiko onarpena eman zion Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari; ondoren, 2012ko urriaren 4an, Plan Nagusi horren Testu Bategina onartu zuen; azken erabaki hori 2012ko urriaren 23ko GAO n (203. zenbakian) argitaratu zen, Plan Nagusiaren barruko hirigintza arauen testuarekin batera.



Orioko Udalak, 2012ko azaroaren 28ko 547. zenbakidun alkatearen dekretuz, erabaki zuen **JENDAURREAN JARTZEA**, hogeiei eguneko epeaz, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren 8. sektoreari —Munto— dagokion ekimen pribatuko plan partziala, udalbatzarrak 2005eko abuztuaren 30ean lehen onarpena eman ziona, sektore horri dagokion Oria ibaiaren azterketa hidraulikoarekin batera, interesatuek aukera izan dezaten biak aztertzeko eta, egoki irudituz gero, udalbatzarraren aurrean alegazioak aurkezteko.

Bai plan partziala eta bai Oria ibaiaren azterketa hidraulikoa jendaurrean egon ziren hogeiei laneguneko epean; iragarkia 2012ko abenduaren 3ko GAOn (230. zenbakian) eta 2012ko abenduaren 4ko EL DIARIO VASCO egunkarian argitaratu zen eta, beraz, alegazioak aurkezteko epea 2012ko abenduaren 5ean zabaldu zen eta 2013ko urtarrilaren 2an bukatu zen.

Alegazioak aurkezteko epean alegazio bakar bat aurkeztu zen: M. Angeles Uranga Urangak aurkeztutakoa, Orioko merkatari, ostalari eta profesionalen Arkupe elkartearen izenean.

Aurkeztu den alegazio bakar horretan Udalarari eskatzen zaio, batetik, ez emateko behin betiko onarpena Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko 8. sektore urbanistikoaren —Munto— plan partzialari; eta, bestetik, subsidiarioki, alegazioak ontzat hartzea eta plan partzialean dagozkion prebentzioak sartzea, inguru horretan merkataritza-gune handi bat ezartzea ebitatzeko. Eskari horren oinarrian, indarrean dagoen erregimen urbanistikoari buruzko kontuaz aparte, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak dagoeneko epaitu dituen beste hainbat kontu daude.

Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko 8. sektore urbanistikoaren —Munto— sektorean indarrean dagoen erregimen urbanistikoari formulatutako hainbat kontsiderazio direla-eta, kontuan hartu behar da udal idazkaritzak, alkatearen eskariz, 2012ko azaroaren 12an egindako txosten juridikoa; txosten horretan azaltzen da zertan den Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko 8. sektore urbanistikoaren —Munto— erregimen urbanistikoa, goian aipatutako sententzietan oinarrituta; txosten juridiko horren II. eta III. ataletan honako hau jasota dago, hitzez hitz:

II.- CONTENIDO DE LAS CITADAS SENTENCIAS DEL TRIBUNAL SUPREMO Y DEL VIGENTE PLAN GENERAL.

1.- Contenido de las sentencias del Tribunal Supremo.

Las dos citadas sentencias del Tribunal Supremo de 25 de octubre de 2012 inciden en el Plan Parcial del sector "8. Munto", aprobado definitivamente mediante acuerdo de 4 de marzo de 2008, y concluyen con el siguiente fallo:



“No ha lugar al recurso de casación (...) interpuesto por el Ayuntamiento de Orio y la JUNTA DE CONCERTACIÓN DE LA UNIDAD DE EJECUCIÓN DEL SECTOR 8 MUNTO DE ORIO contra la sentencia de la Sección 2ª de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de 17 de febrero de 2010 (recurso contencioso-administrativo 845/2008) (...)”

Por su parte, el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, mediante sentencias de 17 de febrero de 2010 (referida al recurso 845/2008) y 10 de noviembre de 2010 (referida al recurso 1356/2008), declaró la disconformidad a derecho del citado acuerdo de 4 de marzo de 2008, de aprobación definitiva del Plan Parcial de Munto, disponiendo la retroacción del procedimiento al momento de exposición pública del documento inicialmente aprobado y del estudio hidrológico exigido por las Normas Subsidiarias.

2.- Contenido del Plan General de Ordenación Urbana de Orio.

Mediante acuerdo de la Diputación Foral de Gipuzkoa de 8 de mayo de 2012 fue aprobado definitivamente el vigente Plan General de Ordenación Urbana de Orio (en adelante, Plan General de 2012).

Con posterioridad, mediante acuerdo de 4 de octubre de 2012, esa misma entidad foral aprobó el Texto Refundido del citado Plan.

Ese último acuerdo, así como la parte normativa del Plan General, fueron publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 203, de 23 de octubre de 2012.

El Plan General de 2012 determina el régimen urbanístico vigente en el conjunto del término municipal, incluido el sector urbanístico “8. Munto” delimitado en él. En concreto, el régimen urbanístico estructural y pormenorizado establecido por ese Plan para dicho ámbito es el resultante de, entre otros, los criterios y objetivos de ordenación y ejecución urbanística siguientes:

“Colmatación del espacio existente entre los ámbitos 6 y 9 y el borde de la ría.

Continuidad de las tramas rectangulares de viales y aceras establecidas en los ámbitos 6 y 9, conformándose manzanas rectangulares y una triangular para la ubicación de la edificabilidad residencial proyectada.

Implantación de un importante equipamiento deportivo-recreativo en el espacio resultante entre la línea de protección de la costa y la propia ría, que permita, entre otros objetivos, el traslado del campo de fútbol de Hondartza.

Complementación de la zona escolar del ámbito «6 Erribera» mediante la ordenación en este ámbito de una nueva parcela destinada a ese mismo fin.



Vinculación de, como mínimo, el 20% del desarrollo residencial proyectado al régimen de las viviendas protegidas.

Consolidación del Plan Parcial promovido en el ámbito, aprobado definitivamente mediante resolución de 4 de marzo de 2008.

Consolidación del «Estudio Hidráulico del río Oria a su paso por el sector 8. Munto», elaborado en agosto de 2008, y evaluado favorablemente mediante informe de «URA. Agencia Vasca del Agua», de 1 de octubre de 2008.

Consolidación del Programa de Actuación Urbanizadora promovido en el ámbito, aprobado definitivamente mediante resolución de 24 de junio de 2008.

Consolidación del convenio de concertación promovido en el ámbito.

Consolidación del Proyecto de Urbanización promovido en el ámbito, aprobado definitivamente mediante resolución municipal de 14 de noviembre de 2008.

Consolidación del Proyecto de Reparcelación promovido en la unidad de ejecución que conforma el ámbito, aprobado definitivamente mediante resolución municipal de 21 de noviembre de 2008.”

III.- RÉGIMEN URBANÍSTICO VIGENTE EN EL ÁMBITO “8. MUNTO”.

El Plan Parcial del sector “8. Munto”, aprobado definitivamente mediante acuerdo de 4 de marzo de 2008, fue promovido y tramitado en el marco del planeamiento general vigente con anterioridad a la aprobación definitiva del citado nuevo y vigente Plan General de Orio.

En ese contexto, el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco declaró la disconformidad a derecho de aquél acuerdo de marzo de 2008, y ordenó la retroacción del procedimiento de tramitación del Plan Parcial al momento del trámite de exposición pública del mismo.

De conformidad con lo expuesto en las correspondientes sentencias, esa disconformidad a derecho del citado Plan Parcial de Munto está asociada, básicamente, a irregularidades formales relacionadas con:

- *Por un lado, la necesidad de incorporar al expediente del Plan Parcial el Estudio Hidráulico exigido por las Normas Subsidiarias de Orio vigentes con anterioridad al Plan General de 2012, cuando menos en el trámite de información pública del Plan Parcial.*



- *Por otro, la aprobación definitiva del Plan Parcial con anterioridad a la publicación de las citadas Normas Subsidiarias.*

No obstante, y en orden a clarificar diversas consultas realizadas ante este Ayuntamiento, hay que indicar que las motivaciones jurídicas de contenido o materiales alegadas por los recurrentes que afectan a la clasificación y calificación del suelo del sector de referencia, han sido rechazadas por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco mediante las dos sentencias ya mencionadas (Stc-RCA 845/2008 y Stc – RCA 1356/2008), cuyo contenido de manera extractada dicen así:

“-Infracción del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de las Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Vertiente Cantábrica aprobado por Decreto 415/1998, de 22 de diciembre. No concurre.

- Infracción del Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales aprobado por Decreto 262/2004, de 21 de diciembre. No concurre.

- Infracción del artículo 25 de la Ley 22/1998, de 28 de julio, de Costas. No concurre.

- Caducidad del procedimiento de elaboración del Plan Parcial. No concurre.

- Infracción del artículo 106 de la Ley de suelo y urbanismo. No concurre.

- Infracción de los estándares de vivienda protegida del artículo 79 de la Ley de suelo y urbanismo. No concurre.

- Disconformidad a derecho de la corrección de errores materiales del documento aprobado por incurrir en una revisión de oficio. No concurre.”

Por su parte, y con el fin de dar respuesta al mandato establecido al respecto en la legislación urbanística vigente (Ley de Suelo y Urbanismo del País Vasco, de 30 de junio de 2006), el Ayuntamiento de Orió acordó promover el proceso de elaboración y tramitación del referido y vigente Plan General de 2012, procediendo, para ello, a la adaptación del planeamiento general vigente con anterioridad.

Con la aprobación de ese Plan General de 2012 se ha dotado al conjunto del municipio del correspondiente régimen urbanístico estructural y pormenorizado. Como es habitual en ese tipo de procesos, en ocasiones, el contenido material de ese régimen es coincidente con el establecido con anterioridad, al no existir razones para introducir modificaciones. Y en otras ocasiones, el contenido material del nuevo régimen reajusta en mayor o menor medida el vigente con anterioridad, en respuesta a los objetivos planteados en cada caso.



En todo caso, interesa subrayar que, pese a la existencia o no de esa continuidad en el contenido material del régimen urbanístico, la aprobación del nuevo Plan General de 2012 ha supuesto tanto para el conjunto de Orio como para, también, el sector Munto, un importante cambio formal, en la medida en que ha supuesto la apertura de un nuevo marco urbanístico formal en sustitución del vigente con anterioridad.

En concreto, puede decirse que ese nuevo marco urbanístico formal tiene o ha tenido en el sector "8. Munto", entre otras, las cinco implicaciones que se exponen a continuación:

**En primer lugar, el régimen urbanístico estructural vigente en Munto es el establecido en el Plan General de 2012.*

Es cierto que, sin perjuicio de determinados reajustes (edificabilidad bajo rasante, etc.), el contenido material de ese régimen urbanístico es coincidente con el establecido con anterioridad a la aprobación de ese Plan General. Pero eso no puede ni debe llevarnos a desconocer la existencia de ese nuevo referente urbanístico formal, con las repercusiones que eso conlleva.

**En segundo lugar, el régimen urbanístico pormenorizado también es el establecido en el citado Plan General de 2012.*

Es cierto que, sin perjuicio de determinados reajustes (edificabilidad bajo rasante, etc.), el contenido material de ese régimen urbanístico pormenorizado es coincidente con el establecido, en concreto, en el Plan Parcial aprobado en marzo de 2008.

Ahora bien, eso no es sino una simple expresión de que el nuevo planeamiento general de Orio ha considerado que la ordenación pormenorizada establecida en ese Plan Parcial es acorde con los objetivos y criterios de ordenación planteados en él.

Dicho de otra manera, el Plan General de 2012 ha hecho suya la ordenación pormenorizada establecida en el referido Plan Parcial.

Precisamente por eso, cabe entender que esa ordenación pormenorizada forma parte del contenido del Plan General, habiendo sido incorporada a éste.

**En tercer lugar, el Plan General de 2012 ha complementado la decisión anterior con otra asociada a la consolidación del "Estudio Hidráulico del río Oria a su paso por el sector 8. Munto", elaborado en agosto de 2008, y evaluado favorablemente mediante informe de "URA. Agencia Vasca del Agua", de 1 de octubre de 2008.*



De esa manera, también ha hecho suya e incorporado a su contenido la referida ordenación pormenorizada complementada con ese Estudio Hidráulico.

** En cuarto lugar, el Plan General de 2012 ha adoptado decisiones equivalentes a las anteriores en lo referente al Programa de Actuación Urbanizadora (aprobado el 24 de junio de 2008), al Proyecto de Urbanización (aprobado el 14 de noviembre de 2008) y al Proyecto de Reparcelación (aprobado el 21 de noviembre de 2008).*

** En quinto lugar, cabe considerar que la tramitación del Plan General de 2012, unida a la incorporación al mismo tanto de la referida ordenación pormenorizada como del citado Estudio Hidráulico, ha conllevado:*

- Por un lado, la exposición pública de esa ordenación pormenorizada de Munto, en el marco del trámite de exposición pública del conjunto del Plan General.

- Por otro, la exposición pública del citado Estudio Hidráulico, junto con la de la mencionada ordenación pormenorizada.

- Por último, la aprobación definitiva de la ordenación estructural y pormenorizada de Munto en un mismo momento y acto, sin que la aprobación de esta última se haya adelantado a la de aquella.

En atención a lo expuesto hasta el momento, cabe concluir que el régimen urbanístico vigente en el sector 8 "Munto" es el establecido en el Plan General de 2012, que determina su ordenación estructural, su ordenación pormenorizada, así como los correspondientes criterios de ejecución de esa ordenación.

Lurzoruairen eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 legearen 106. artikuluaurren urraketaire buruz, esan behar da artikulua hori honi buruzkoa dela: indarrean dagoen hirigintza antolamenduarekin bateraezinak deklaratu diren jarduera klandestinoak erabaki edo epai irmo baten bidez legeztatzeare buruzkoa, planeamendua aldatuz edota berrikusiz; suposamendu hori ez da kasu honetan ematen, ez delako egon indarrean dagoen hirigintza ordenamenduarekin bat ez datorren jarduera klandestinatorik, egin diren jarduera guztiak momentu horretan indarrean zegoen planeamenduaren arabera emandako lizentzietan oinarrituta egin direlako.

Muntoko plan partzialaren tramitazio berriak ez du sektorean indarrean dagoen planeamendu urbanistikoa aldatu edo berrikusten; egiten duen bakarra da bete txosten honen lehen atalean aipatutako epaiak, indarrean dagoen 2012ko Plan Nagusiaren arabera.

Lurzoruairen eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 legearen etxebizitza babestuen estandarraren urraketaire buruz, esan behar da kontu hori Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak ebatzi zuela 2010eko otsailaren 17ko



112/2010 epaian; epai horren 9. zuzenbide-oinarrian diktaminatzen du ez dela izan ez-betetzerik Lurzoruaren eta Hirigintzaren legean aurreikusitako babes publikoko etxebizitzaren estandarrei dagokienez.

Muntoko plan partzialaren tramitazio berriak egiten duen bakarra da txosten honen lehen atalean aipatutako epaiak betetzea eta, beraz, aplikagarria da Lurzoruaren eta Hirigintzaren legearen laugarren xedapen iragankorra.

Zona hori urak hartzeko arriskuari buruz, esan behar da kontu hori 112/2010 epaiak ebatzi zuela, 2. zuzenbide-oinarrian; bertan esaten da Muntoko plan partziala zuzenbideari lotzen zaiola gai horri dagokionez.

Itsasertzaren legearen 25. artikulua urraketari buruz, esan behar da kontu hori 112/2010 epaiak ebatzi zuela, 4. zuzenbide-oinarrian; bertan diktaminatzen da Muntoko plan partziala zuzenbideari lotzen zaiola gai horri dagokionez eta ez duela urratzen Itsasertzaren legearen 25. artikulua.

‘Merkataritza-gune handi’ bat ezartzeari buruz, esan behar da kontu hori 112/2010 epaiak ebatzi zuela, 3. zuzenbide-oinarrian; bertan diktaminatzen da Muntoko plan partziala zuzenbideari lotzen zaiola gai horri dagokionez.

Aurreko guztiaren argitan, alegatzaileak aurkeztutako arrazoi juridikoak ez dira nahiko plan partzialaren behin betiko onarpenari uko egiteko egin duen eskaria onartzeko; udal idazkaritzak, gainera, adierazten du aipatu diren epaiak bete beharrekoak direla, bertan jasotako erabakiei konplimendu formala emanaz, ‘disponiendo la retroacción del procedimiento al momento de exposición pública del documento inicialmente aprobado y del estudio hidrológico exigido por las Normas Subsidiarias’; hori guztia, indarrean dagoen 2012ko Plan Nagusiarekin eta aplikagarriak diren legeekin bat etorritik.

2/2006 lege autonomiko horretako 95. artikulua 3. atalak honako hau ezartzen du: Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu bategin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onspena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da.

Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2-c) artikuluan ezarritakoaren arabera, Orioko udalbatzarrari dagokio 8. sektorearen —Munto— plan partziala behin betikoz onartzea eta haren kontra aurkeztutako alegazioak ebatzea; plan partziala indarrean sartuko da behin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean planaren behin betiko onarpena eta hari dagozkion ordenantza urbanistikoak argitaratzen direnean.



Alkateak hartzen du hitza eta, Bilduren izenean, adierazten du bere talde politikoak plan partziala behin betikoz onartzearen aldeko botoa emango duela; baina honako zehaztasunak azaldu nahi dituela:

- Bere talde politikoak herentzian jaso duela plan partzialaren dokumentua.
- Plan partziala EAJk gobernatutako aurreko agintaldietan sortutakoa dela.
- Gaia epaitegietara eraman zela eta horrek 100.000 euroko gastua ekarri diola Udalari, profesionalen ordainsaritan (abokatuak, prokuradoreak...)
- Gaur egun Muntoko eremu urbanistikoa ia erabat bukatuta dagoela. Dagoeneko exekutatuta daude futbol eta sofbol zelaiaren obrak eta haren azpiko aparkalekuak, DBHko ikastetxe berriaren lanak, proiektatutako etxebizitza berriak, parke publikoa, eta abar.

Hori guztia dela eta, ordenamendu urbanistikoari dagokionez, Udalaren jarduera, aurrerantzean, prozesu parte-hartzaileak abiatzera jo behar du. Adierazten du, baita ere, Orioko Udalak, 2013. urtetik aurrera, lehiaketa publikoa egingo duela Orioko Hirigintza Antolamendurako Plan Nagusi berri bat idazteko.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoari *xelebrea* iruditzen zaiola Bilduren jarrera: aurreko udal agintaldi osoan planaren kontra aritu ziren eta, orain, plan partzialari koma bakar bat ere aldatu gabe, alde agertzen dira; horrek garbi adierazten du Bilduren jarrera inkoherentea; EAJ taldeak, aldiz, koherentziaz jokatu du hasieratik Muntoko plan partzialaren tramitazio urbanistikoari dagokionez.

Alkateak hartzen du berriro hitza eta adierazten du ez dagoela inolaz ere ados Jon Redondo zinegotziak esandakoarekin. Adierazten du Bilduren jarrera ez dela izan inkoherentea; Bilduk egin duena izan da Muntoko plan partzialaren tramitazio urbanistikoarekin gertatutako guztia aztertu, gogoeta kritikoa egin, aldeko eta kontrako arrazoiak baloratu, eta, betiere, oriotarren interes orokorren alde jokatu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, aplikagarri diren lege eta arauak ikusita, idazkariak eta arkitektoak egindako txostenak ikusita, Itsasertzetako Zuzendaritza Nagusiak eta URA Uraren Euskal Agentziak emandako aldeko txostenak ikusita, Hirigintza eta Ingurumena batzorde informatzaileak 2013ko urtarrilaren 30ean emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberría (EAJ), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI KONTRAKO BOTO**]:



1.- ATZERA BOTATZEA OSORIK plan partzialaren lehen onarpenaren kontra M. Angeles Uranga Uranga, Arkupe Orioko Merkataria, Ostalari eta Profesionalen elkartearen izenean, aurkeztutako alegazioak, erabaki honen azalpenean jasota dauden arrazoiengatik.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko 8. sektore urbanistikoaren —Munto— ekimen pribatuko plan partziala. Plana INMOBILIARIA ORIO TXOKO TXIKI SL eta DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL SL entitate merkantilek sustatu dute eta Luis Ulazia eta Luciano Pagaegi arkitektoek idatzi dute.

3.- BIDALTZEA aurreko erabakiak aipatzen duen plan partziala Gipuzkoako Foru Aldundira, planeamendu urbanistikoaren erregistro administratiboan jaso dezan, argitaratu aurretik.

Plana indarrean jar dadin eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 88. artikulua aurreikusitako ondorioak sor ditzan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da behin betiko onarpeneko erabakiaren eta arau urbanistikoaren eduki osoa, berariaz adieraziz plan urbanistiko hori goian aipatutako erregistroan jasoa geratu dela.

Behin betiko onarpenaren erabakia argitaratuko da, baita ere, lurralde historikoko hedapen handieneko egunkari(et)an.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAK ONARTUTAKO KONTRATAZIO PUBLIKOKO ESPEDIENTEETAN APLIKATU BEHARREKO HIZKUNTZ IRIZPIDEEL.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Diktaminatutako testuak honako hau dio:

Orioko Udalaren kontratu publikoek nahitaez bete beharko dute, gutxienez, euskararen ofizialtasuna jasotzen duen araubidea:

- EAEko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua.

- Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea.

- EAEko administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.

- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina (2011).



- *Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakia, 2009ko urtarrilaren 27koa.*
- *Orioko Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen udal ordenantza.*

Honela bada, kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak Udalak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak bermatzeko helburua izango dute: oro har, euskararen ofizialtasunaren araubidea betearaziko da. Nolanahi ere, kontratuaren xede den zerbitzuaren ezaugarriek horrela eskatzen badute, neurriak hartuko dira hainbat kontratu euskaraz exekutatzeko (segun eta zerbitzuaren gaia zein den, xede-taldea zein den eta Udalak araubide juridikoaren barruan onartuta dauzkan hizkuntzari buruzko arauak zein diren).

Hizkuntza baldintzak kontratazio modu eta mota guztietan jasoko dira: kontratu irekietan, prozedura negoziatuetan eta kontratu txikietan, bai obra kontratuetan, herri-lanen emakidetan, zerbitzu-kontratuetan, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta hornidura kontratuetan. Halaber, baldintza agiri guztietan; baldintza agiri administratiboetan eta teknikoetan.

Edozein kontratazio egin aurretik eta ondoren, ziurtatu egin beharko da delako enpresa edo norbanakoa gai dela eman behar duen zerbitzua euskaraz emateko. Horretarako, kontratazio guztietan honako prozedura jarraitu beharko da hizkuntza baldintzak txertatzeko orduan:

- 1. Udal sail bakoitzaren ardura da bere kontratazio prozedura guztietan hizkuntza-baldintzak txertatzea eta jarraipena egitea, Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin.*
- 2. Euskara Zerbitzuaren aldeko txostena ezinbestekoa izango da kontratazioen prozeduran aurrera egiteko.*

Alkateak hartzen du hitza, Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoa hizkuntza irizpideak onartzearen aldekoa dela, Orioko Udalak tinko egin behar duelako euskararen alde; bestalde, hizkuntza irizpide horiek udalbatzarrak orain dela gutxi, Urola Kostako Udal Elkartearen proposamenez, onartutako hizkuntza politikaren dekalogoaren ondorio bat dira.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak 2013ko urtarrilaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalak onartutako kontratazio publikoetako espedienteetan aplikatu beharreko hizkuntza irizpideei, 2013ko urtarrilaren 30eko Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak emandako diktamenean jasotako terminotan.

2.- Espedientea **JENDAURREAN JARTZEA** 30 laneguneko epean, iragarkia Udalaren ediktu-taulan, udal webgunean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintziako tirada handieneko egunkarietako batean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia, interesatuek aukera izan dezaten erreklamazio edo oharrik aurkezteko.

3.- Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aipatutako hizkuntza irizpideak onartutzat joko dira behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- Erabaki honen **BERRI EMATEA** Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzari, eta jarraipenerako eta estandarizaziorako lantaldean parte hartzeko izena ematea.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA, ARAUTUKO DUENA ORIOKO UDAL KANPINEKO TABERNA ETA SUPERMERKATUAREN ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATAZIOA, KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumena, batzorde informatzaileak 2013ko urtarrilaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orria, arautuko duena Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatuaren zerbitzuak emateko kontratazioa, kontzesio administratiboko erregimenean; baldintza-orriaren laburpena hau da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

a) Erakundea: Orioko Udala.

b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

2.- Kontratuaren xedea.



a) Xedearen deskribapena: Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak kontzesio administratiboko erregimenean ematea.

b) Kontratuaren iraupena: Adjudikatzen den egunetik 2013ko abenduaren 31 arte. Kontratua urtero luzatu ahal izango da, bi aldeen arteko adostasunez; baina guztirako iraupena, luzapenak barne, ez da inoiz izango 15 urte baino gehiagokoa, adjudikazio egunetik kontatzen hasita.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

a) Tramitazioa: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Modua: Lehiaketa.

4.- Gutxieneko kanona.

Urteko gutxieneko kanona 15.000 eurokoa izango da (BEZ aparte) Lizitatzailcek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

5.- Bermeak.

Behin betikoa: 15.000 €.

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazioa lortzeko.

Baldintza-orriak www.oriora.com webgunean aztertu ahal izango dira, kontratistaren profilean, eta udal idazkaritzan ere bai.

8.- Proposamenak aurkeztea.

a) Epea: Hogeita hamar egun, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.

c) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.

d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 8:30etik 14:30era.



9.- Proposamenen irekiera.

a) **Tokia:** Oriko Udala

b) **Data:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo lanegunean; egun hori larunbatarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.

c) **Ordua:** 12:00etan.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUNKETAKO ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTROAREN AISIALDIKO ZERBITZUAREN GESTIOAREN KONTZESIOA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA JURIDIKOAK ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emago duela, batetik, baldintza-orrian hutsuneak ikusten dituelako (eranskin batzuk falta dira) eta, bestetik, Kirol batzordeko EAJren ordezkariak, baldintza-orria diktaminatu zen bilkuran, ez zuelako izan ekarpenik egiteko aukerarik, esan zitzaielako baldintza-orriaren edukia alde aurretik adostuta zegoela eta, beraz, itxita zegoela ekarpenak egiteko.

Kirol, Aisialdi eta Gazteriako batzordeko buru Bixente Lasa zinegotziak hartzen du hitza, Bilduren izenean, eta adierazten du harrigarria egiten zaiola EAJren kontrako botoa, urtarrilaren 23an egindako bilkuran haren ordezkariak abstentzio botoa eman zuelako gaiaren bozketan.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, Orain plataformaren izenean, eta adierazten du Kirol, Aisialdi eta Gazteriako batzordeak urtarrilaren 23an egindako bilkuran EAJren ordezkariak ez zuela inolako eragozpenik izan baldintza-orriari ekarpenak egiteko; beste kontu bat da, egin izan balitu, onartuko ziren ala ez.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, Kirol, Aisialdi eta Gazteriako batzorde informatzaileak 2013ko urtarrilaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**; bozketan berdinketa gertatu denez, bigarren bozketa egiten da, emaitza berberarekin; orduan, Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide



Juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100.2 artikulua ezartzen duen prozeduraren arabera, alkateak kalitatezko botoa erabiltzen du]:

1.- ONARTZEA Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio zentroaren aisialdiko zerbitzuaren gestioaren kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa arautuko duten baldintza juridikoak eta ekonomiko-administratiboak.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 142. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orrien laburpen hau argitaratzen da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

a) Erakundea: Orioko Udala.

b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

2.- Kontratuaren xedea.

a) Xedearen deskribapena: Kontratuaren xedea Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio-zentroaren aisialdiko zerbitzuen gestioa da, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboaren arabera.

c) Epea: Lau urte. Bi aldiz luza daiteke kontratua, modu automatikoan; luzapen bakoitza, gehienez, bi urtekoa izan daiteke.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

a) Tramitazioa: Ohikoa.

b) Prozedura: Irekia.

c) Modua: Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren kopurua.

Adjudikatzaileak ordaindu beharko duen kanona, gutxienez, urteko 13.200 eurokoa izango da (BEZ aparte). Lizitatzailleek aukera izango dute kanona hobetzeko beren eskaintza ekonomikoetan.

5.- Bermeak.

Behin betikoa: Adjudikazioaren zenbatekoaren %5 (BEZa aparte).



6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazioa lortzeko.

Espedientearen dokumentazioa jendearen eskura izango da www.oriara.com webgunean, kontratistaren profilean.

8.- Proposamenak aurkeztea.

a) **Epea:** 30 egun, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

b) **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:** Baldintza-orrian zehaztutakoa.

c) **Tokia:** Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailtza. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.

d) **Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera: 8:30etik 14:30era.

9.- Proposamenen irekiera:

a) **Tokia:** Orioko Udala

b) **Data:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo asteko ostegunean. Egun hori laneguna ez bada, hurrengo lanegunean egingo da.

c) **Ordua:** 12:00etan.

Emandako botoa azaltzerakoan, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta salatu egiten du alkateak behin eta berriz erabiltzen duela kalitatezko botoa.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUNKETAKO ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTROAREN KIROL MEDIKUNTZA, FISIOTERAPIA ETA HIPOXIA ZERBITZUAREN GESTIOAREN KONTZESIOA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA JURIDIKOAK ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango duela, gai-zerrendako 5. gaiaren eztabaidan azaldutako arrazoi berberetatik.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, Kirol, Aisialdi eta Gazteriako batzorde informatzaileak 2013ko urtarrilaren 23an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Saizar (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**; bozketan berdinketa gertatu denez, bigarren bozketa egiten da, emaitza berberarekin; orduan, Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100.2 artikulua ezartzen duen prozeduraren arabera, alkateak kalitatezko botoa erabiltzen du]:

1.- ONARTZEA Orioko Arraunketako eta Piraguismoko teknifikazio zentroaren kirol medikuntza, fisioterapia eta hipoxia zerbitzuaren gestioaren kontzesioa adjudikatzeko lehiaketa arautuko duten baldintza juridikoak eta ekonomiko-administratiboak.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 142. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orrien laburpen hau argitaratzen da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

a) **Erakundea:** Orioko Udala.

b) **Espedientea tramitatzen duen bulegoa:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza

2.- Kontratuaren xedea.

a) **Xedearen deskribapena:** Kontratuaren xedea Orioko arraunketako eta piraguismoko teknifikazio-zentroaren kirol medikuntza, fisioterapia eta hipoxia zerbitzuen gestioa da, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboaren arabera.

b) **Epea:** Lau urte. Bi aldiz luza daiteke kontratua, modu automatikoan; luzapen bakoitza, gehienez, bi urtekoa izan daiteke.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

a) **Tramitazioa:** Ohikoa.

b) **Prozedura:** Irekia.

c) **Modua:** Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren kopurua.



Adjudikatzailerak ordaindu beharko duen kanona, gutxienez, urteko 24.800 eurokoa izango da (BEZ aparte). Lizitatzailerak aukera izango dute kanona hobetzeko beren eskaintza ekonomikoetan.

5.- Bermeak.

Behin betikoa: Adjudikazioaren zenbatekoaren %5 (BEZa aparte).

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazioa lortzeko.

Espedientearen dokumentazioa jendearen eskura izango da www.oriora.com webgunean, kontratistaren profilean.

8.- Proposamenak aurkeztea.

a) Epea: 30 egun, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.

c) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailletza. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.

d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 8:30etik 14:30era.

9.- Proposamenen irekiera.

a) Tokia: Orioko Udala

b) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo asteko ostegunean. Egun hori laneguna ez bada, hurrengo lanegunean egingo da.

c) Ordua: 12:00etan.

Emandako botoa azaltzerakoan, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta salatu egiten du, ostera, alkateak behin eta berriz erabiltzen duela kalitatezko botoa.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 'SAREGILE KALEA' IZENA EMATEA ORIOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIKO 8. SEKTOREAN —MUNTON— KOKATUTAKO OINEZKOEN BIDE BATI.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2012ko abenduaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 'Saregile kalea' izena ematea Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko 8. sektorean —Munton— kokatutako oinezkoen bide bati.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ TALDE POLITIKOAK AURKEZTU DUEN PROTOKOLOA, ETXEGABETZE KASUETAN UDALAK NOLA JOKATU BEHAR DUEN ARAUTZEN DUENA.

Udalbatzarrak EAJk aurkeztutako protokoloaren berri jasotzen du. Protokoloak honela dio, hitzez hitz:

JARDUERA PROTOKOLOA, UDALERRIAN DESJABETZE/KALERATZE KASUAK EMATEN DIRENERAKO.

1.- Gizarte langile bati emango zaio desjabetze/kaleratze kasuak aztertze eta jarraipena egiteko ardura, dena delakoa prozedura aurkitzen den puntua (desjabetze/kaleratze jakinarazpena, abiatzea...)

2.- Beharrian egoeran dauden familiei eskaini ahal zaizkien baliabideak identifikatzea.

3.- Finantza erakundeei dagokienez:

-Udalerrian dauden finantza erakundeekin harremanetan jartzea, aurrera eramango den protokoloaren edukiaren berri emateko; eta, behar besteko aurrerapenez, izan daitezkeen desjabetze/kaleratze kasuak identifikatu ahal izateko.

-Praktika onen kodea betetzen dela egiaztatu; eta betetzen ez bada, udalak kode hori betetzen ez duen erakundearekin dituen harremanak berraztertzea.

4.- Familiari ematen zaion arretari dagokionez:

Gizarte Zerbitzuen departamentuak eskariak jasotzea eta arazoaren garrantzia identifikatzea.



- *Espedienteari hasiera ematea, kasua aztertzea, eta beharrezkoa bada, desjabetze/kaleratze arriskuan egon daitezkeen pertsonen aholkularitza ematea.*
- *Beharrezkoa bada, kasua Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritza zerbitzuaren ardurapean jartzea.*
- *Alkateari gizarte langileak hasiera batean egin duen txostenaren berri ematea, eta familiarekin harremanetan jartzea.*
- *Gizarte langileak txostena egingo du: egoeraren inguruko diagnosiarekin, egoerari aurre egiteko proposatzen dituen neurriekin eta dauden baliabideekin lehenesten dituen alternatibekin.*

Jarraipena:

- *Dagokion Batzorde Informatiboan, gainerako Udal Taldeei emango zaie garatu den prozeduraren berri.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ), Etxeberria (EAJ), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz; abstentzio-botoak: Solaberrieta (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu) eta Saizar (Bildu), guztira **LAU ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA EAJ talde politikoak aurkeztu duen protokoloa, etxegabetze kasuetan Udalak nola jokatu behar duen arautzen duena, goian jasota dagoen bezalaxe.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du orain dela gutxi betetzen duen Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol zuzendari karguari esker jakin ahal izan duela Orioko alkateak diru-laguntza eskatu duela 'Gazteak eta itsasoaren kultura. Arrantzaleen kultur ondarea baloratzea' izeneko auzolandegia egiteko 'Auzolandegiak 2013' programaren barruan; Jon Redondok galdetzen du ea zein udal batzorde informatzailetan aztertu eta eztabaidatu den eskari hori. Alkateak erantzuten dio, esanez, bere asmoa izan dela diru-laguntza eskatzea eta, lortuz gero, gaia dagokion batzorde informatzailean aztertu eta eztabaidatzea.

Jon Redondo zinegotziak konpromisoa hartzen du proiektua bultzatzeko eta dagokion diru-laguntza emateko.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.



ORIOKUDALA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura
2013/02/05

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,